

KIROLA

urteko kronologia

akordiorik lortu, eta finala bitartean enpresa bakoitzeko pilotariak bere aldetik lehiatu ziren.

16 • Tau Baskoniaren txakalaldia Espainiako Kopan

Urtero egoten dira ezusteak Kopa bezala lehiaketetan, eta Tau Baskoniak aurreneko kanporaketan galdu zuen Caceresen aurka (71-86). Urduri jokatu zuten gasteiztarrek eta Caceresek merezimendu osoz lortu zuen finalerdietarako txartela. Kopa txapelketa Bartzelonan irabazi zuen, finalean Real Madrid mendea hartuta.

20 • Hormadi gailurrera, finalerako sailkatu eta Europako Koparako txartela lortuta


Hogeita bost urteko ibilbidean gailurra jo zuen Hormadi. Elite Ligan hirugarren urtea zuten lapurtarrek eta Reims txapelduna finalerdietan mendea hartuta, finalerako txartela lortu zuten. Horrekin batera, Europako Koparako sailkatu zen Hormadi. Finalerdietako aurreneko bi partidak Reimsek irabazi zituen, baina ondorengo hirurak lapurtarrek.

20 • Hauteskundeetara ez zela aurkeztuko jakinarazi zuen Arratek

Athleticeko presidente berria aukeratzeko ekainean egin ziren hauteskundeetara ez zela aurkeztuko jakinarazi zuen Jose Maria Arratek. Inolako presiorik gabe hartutako erabaki zela esan zuen Arratek. Berriak zur eta lur harrapatu zituen zuzendaritza batzordeko kideak.

22 • Astiazaran Realeko presidente

Jose Luis Astiazaran aukeratu zuten Realeko akziodunek dotozen bost urteotan kluba gidatzeko. Espero baino parte hartze handiagoa izan zuten Realeko hauteskundeek, kapitalaren %66a izan zen ordezkaturak. Astiazaranek 21.178 akzio eskuratu zituen, Peio Gibelalde 13.764 akzio eta Ignacio Gallok 9.652. Luis Uranga ordezkatu zuen Astiazarenen.



PABLO S. QUIZA

Martxoak 31 • Agur eta ohore, Diego. Kolpe handia jaso zuen euskal kirolak martxoko azken egunean. Azkoitia-Azpeitia lasterketaren bezperan, Alejandro Gomezekin entrenatzen ari zela, bihotzekoak jota hil zen Diego Garcia. Hurrengo eguneko proba Diegoren ohoretan egin zen.

24 • Paula Radcliffe nagusi afrikarren erreinuan

Munduko Kros txapelketetan Paula Radcliffe britainiarrak irabazi zuen emakumezkoetan. Radcliffek ezustekoa eman zuen, amaiera ikusgarrian Gete Wami etiopiarra eta Lydia Cheromei kenyarra mendea hartuta. Afrikarren erreinuen, kro-sean, emakume zuri bat nagusitzea ezusteko handia izan zen, baina lasterkari beltzei aurrea hartu zien Radcliffek.

24 • Euskaltel-Euskadi estreinakoz Munduko Kopako klasikoetan

Milan-San Remo klasikoa, Munduko Kopako lehen proba, Erik Zabel alemaniarrek irabazi zuen, laugarrenez jarraian. Euskaltel-Euskadik estreinakoz parte hartu zuen Munduko Kopako klasiko batean. Julian Gorosperen aginduetara joandako ziklista gehienak tropel nagusian helmugaratu ziren, baina eskarmentua faltan izan zuten.

24 • Muskarditz-Biscoubyrentzat Elite Mailako Xapelgoa

Rene Muskarditz eta Jean Claude Biscouby faboritoek irabazi zuten Elite Mailako Txapelketa, finalean Francis eta Phillipe Ka-

rrikart lehengusuak mendea hartuta (40-25). Lau pilotariek joko ikusgarria eskaini zuten Baionako Trinketea jokaturako finalean, baina faboritoek jantzi zuten txapela.

25 • Mohammed Mouhrit belgikarra Tergaten hutsuneaz baliatu zen

Munduko Kros Txapelketan Mohammed Mourhit belgikarrek ederki baliatu zuen Paul Tergat azken urteetako txapeldunaren hutsunea. Helmugarako lau kilometro falta zirela, erritmoa bizitu eta bakarrik joan zen. Marokon jaioa da, 1997an belgikar egina.

25 • Didier Mundutegiren balentria Vendee Globe amaituta

Vendee Globe munduari itzulia osatuta, Sable d'Olonneko portura iritsi zen Didier Mundutegi euskal marinela. Proba 14. postuan amaitu zuen Mundutegik, munduari itzulia 135 egunetan osatu ondoren. Aurreneko 39 egunak zoragarriak izan zirela esan zion EGUNKARIARI, baina ondorengoak gogorrak izan zirela azpimarratu zuen.

27 • Hormadiren ametsa zapuztu zuen Rouenek

Rouenek ez zion aukerarik eman Hormadiri. Izotz Hockeyko Frantziako Elite Ligako finalean Rouenek hiru partidak irabazi zizkion Hormadiri, eta lapurtarrak ametsaren atarian geratu ziren. Hala eta guztiz ere, inoizko sasoi onena egin zuen iaz Hormadi: txapeldunorde ligan eta Europako Koparako txartela poltsikoratuta.

28 • Lapurreta lotsagarria Tau Baskoniari Atenasen

Argi eta garbi denboraz kanpo sartutako saskiraketa bat ontzat emanda, epaileek garaipena eman zioten Atenaseko AEKri Euroligako finalerdiko aurreneko partidari (75-74). Tau Baskoniako jokalaria eta entrenatzailearen haserre eragin zuen eta gasteiztarrek errekurtsioa aurkeztu zuten. Atenaseko bigarrena ere, irabazi egin zuen Tauk, ezusterik gabe oraingoan. Hirugarren bat ere irabazi behar izan zuten, aurreneko partida errepikatzeko erabakia hartu zuelako Meirinek, Euroligako epaile bakarrak. Tauk Greziako taldeen berreroa izan zen.

31 • Portland Txapeldunen Ligako finalera eta Bidasoa EHFkoaren atarian

Portland San Antonio partida ikusgarria jokatu zuen Esloveniako Celjeren kiroldegian (29-32), eta Txapeldunen Ligako finalera sailkatzea lortu zuen. Bidasoa, aldiz, EHF Kopako finalaren atarian geratu zen. Irundarrek zortzi golez galdu zuten Alemaniako Magdeburgen.



Felix Sarasola

TXITXARDIN
BELTXA JATETXEA

GARAIA GARAIAKO JAKIAK

ORIAKO PARKEAN - LASARTE-ORIA - Tel.: 943 37 03 04